



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

OROZKOKO UDALAREN ERABILERA PUBLIKOKO MENDIETAN KOKATUTAKO LARREAK ARAUTZEN DAUAZAN ORDENANTZA

Arrazoien azalpena:

Orozkoko udalerriak erabilera publikoko 3.100 ha inguru daukaz, 6 mendi publikotan bananduta, Bizkaiko EPMen katalogoko 7 eta 12 artean zenbakituta dagozanak. 11 eta 12 EPMak kenduta, gainerako mendiak Gorbeia Parke Naturalaren barruan dagoz.

Orozkoko mendi publikoen azalera arboladien (1.600 ha) eta arbolarik bako eremuen (1.500 ha) artean bardin antzera banatzen da. Arbolarik bako azaleran batez be larreak-sasiak dagoz, eta arboladietan pagoak (730 ha) eta intsinis pinua (415 ha).

Horregatik eta daukan erliebe aldapatsuagatik, lur-eremu honegaz lotutako jarduera ekonomiko nagusienak lehenengo sektoreari jagokozanak dira, batez be abeltzantza eta baso-ustiapena.

Ordenantza honen helburua erabilera publikoko mendietan dagozan larreak ahalik eta ondoen kudeatzea da, azaleraren ingurumen-, ekonomia- zein gizarte-onura handiena lortzeko.

Larre honeek balio paisajistikoa eta ekologikoa izateaz ganera, Orozkoko abeltzantza sektorearentzako eta berau osatzen daberen agenteentzako berezko balio ekonomikoa ere badaukie, jarduerarentzako osagarri ekonomikoa baitira.

Orozkoko abeltzantza ustiapenak udalerriko landaguneetan dagoz; halandaze, jarduera honek larreak ekologikoki kontserbatzea eta landaguneak balioan jartea, kontserbetea zein sustatzea dakar.

Orozkoko abeltzantza jarduerak daukan garrantziagatik, eta kontuan izanda larre publikoak jarduera honen oinarri fisiko eta ekonomiko bilakatzen dirala, beharrezkoa da herri larreak erabilia beraien urteko azalera-aitorpenarentzako zenbait hektarea esleitzen jakezan abeltzantza ustiapen estentsiboari baldintza minimo batzuk jartea.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

Ganera, larreen herri erabilera estentsiboak traba batzuk eragiten dauz, ordenantza honen bitartez arautu gura diranak, esaterako: larreen egoera ekologikoa, beronen ustiapen-maila, larreak erabilten dauazan ganadua identifikatea, honeen osasun-egoera, etab.

Estentsibidadeari lotutako abere-jardueraren garapen egokia ahalbidetuko daben azalera, instalazioak eta azpiegitura izan behar dabe ustiapenek, higie, abereen osasun, identifikazio eta erregistro, animalien elikadura, animalien ongizate eta ingurumen arloan indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Bestalde, ordenantza honegaz, Orozko lako udalerri batentzako ustiapen perfektuaren ereduaren inguruan bidea egin (jarduera nagusia, ustiapenaren batezbesteko tamaina...) gura da, lurraldearen landa garapen politiketara egokitutako abeltzantza-jardueraren etorkizuna bermatzeko.

Kontuan izan behar dogu nekazaritza eta abeltzantza udalerriko Balio Erantsi Gordinaren %2,4 baino ez dirala, baina ere berean, oso sektore banandua da bertan jarduten daben pertsona-kopuruari jagokonez.

Hori holan, datozen urteotan be Orozkoko Udalak abere-ustiapen profesional eta orekatuen alde beharrean jarraituko dau; etorkizuneko belaunaldientzako aukera bat izango diran ustiapenak, ekonomikoki eta ingurumenari zein gizarteari jagokonez jasangarriak izango diranak, eta bertoko arrazak zein espezieen arteko oreka mantenduko dabezanak.

Azkenik, Orozkoko larreak beste udalerri batzuetako larreekaz mugakide dirala esan beharra dago, eta mugalde horreetan araudi desbardinak dagozala, baina inguru horreetan bazkatzen dauen ganadua elkarregaz bizi dala, udalerri bietan bazkatuz. Horregaitik eta udalerri desbardineta abeltzain-sektoreen arteko alkarbizitza sustatzeko asmoz, larreetan kudeaketa komunezko ereduak jarten joan beharra dago.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

1. artikulua: APLIKAZINO- EREMUA

Orozkoko Udal titulartasuneko mendietako larreetan behi, zaldi, ardi eta ahuntz espezieetako ganaduak egiten dauen larreen aprobetxamentua arautuko dau Ordenantza honek.

2. artikulua: HELBURUA

Orozkoko Udalak baimendu ahal izango dau aurretik aitatutako larreen aprobetxamentua Ordenantza honetan ezarritakoaz bat etorriz eta basoetako Antolamendu-planetan xedatutakoagaz batera.

Baimen hau, jabego eskubide barik eta beste inoren kalte barik emoten da.

Baimendutako epeak hainbat urtetarakoak izan daitezke, aldean artean dagozan plan edota konpromiso zehatzen barruan dirala.

Era berean, Orozkoko Udalak legez eraturako udalerriko abeltzainen alkarteek edo udalerritik kanpokoak diran beste alkarte batzuek lankidetzak hitzarmenak sinatu ahal izango dauz.

3. artikulua: PERTSONA/ALKARTE ONURADUNAK

Ordenantza honek arautzen dauazan larreen aprobetxamentua honako honeek eskatu ahal izango dabe:

- Orozkoko udalerriko herritarrek.
- Legez eratuta dagozan udalerriko abeltzainen alkarteek.

Onuradunek ondorengo baldintza guztiak bete beharko dabez:

- Adinez nagusiak izatea.
- Orozkon erroldatuta egotea.
- Azken urte bietan bertan benetan bizi izatea.
- Orozkoko Udal mugartean dagoen behi, zaldi, ardi edota ahuntz ganaduaren abere-ustategi baten titularrak izatea.
- Aprobetxamentu honetako espezieen geldialdi begetatiboagaitik, osasun-berrogeialdiagaitik, mendiaren egoera fisikoagaitik eta bertan



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

egotea eragozten dauen beste edozein arrazoiengaitik mendian egoteko baliobako denboraldietan aitortutako ganadua norbere bazka-baliabideekaz elikatzea eta bertan egotea ahalbidetuko dauan hesitutako lursail edota alojamentu nahikoa, behar dan beste denborarako eta agiri bidez frogatuta, izatea.

- Udalerriko abeltzainen alkarteren bateko bazkide izatea.

Legez eratutako udalerriko abeltzainen alkarreak izanez gero, bertako kide guztiek bete beharko dabez artikulua honetan jarritako baldintzak.

Ondorengo hipotesiak **Jarraipen batzordean** jorratu eta baloratuko dira:

- Aurreko baldintzak bete barik, Orozkoko Udal mugartean dagoen behi, zaldi, ardi edota ahuntz ganaduaren abere-ustiategi baten titularrak diran pertsonak.
- Udalerritik kanpokoak diren alkarreak edo erakundeak, hareeekaz hitzarmenak sinatuta izanez gero.
- Behi, zaldi, ardi edota ahuntz ganadua daukien eta mugakide diran herrietako pertsonak. Larreen ustiapen estentsiboaren beharrianak Orozkoko ganaduagaz estaltzen ez diran kasuetan baino ez.

4. artikulua: ESKABIDEAK

Orozkoko Udalak urtero emongo dau larreen aprobetxamenturako baimena, udalerriko abeltzainen alkarteren bitartez eta interesdunak halan eskatuta. Eskabidea abeltzainen alkarreak egindako eredua erabiliz gauzatuko da, eta bertan honako hau jasoko da:

- Izena eta abizenak, NAN, lanbidea eta helbidea, pertsona fisikoaren kasuan; eta izena, IFZ, eta helbide soziala pertsona juridikoaren kasuan.
- Larreetara joango dan abere bakotxaren identifikazio-zenbakia. Bakotxaren arraza adierazteaz ganera, eguneratutako erroldan sartuta egon beharko dira
- Ordenantza honetan jarritako baldintzak betetearen inguruko zinpeko aitorpena.
- GE aseguru baten ordainketari jagokonez egunean dagoela adierazten dauen frogagiria (onuraduna alkarre bat danean baino ez).



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

- Eskatzailea titular lez ageri dan nekazaritza-ustiapen txartelaren kopia.
- Aprobetxamentu honetako espezieen geldialdi begetatiboagaitik, osasun-berrogeialdiagaitik, mendiaren egoera fisikoagaitik eta bertan egotea eragozten dauen beste edozein arrazoiengaitik mendian egoteko baliobako denboraldietan aitortutako ganadua norbere bazka-baliabideekaz elikatzea eta bertan egotea ahalbidetuko dauan hesitutako lursail edota alojamentu nahikoa izatearen froga.
- Azkenengoz aurkeztutako azalera-aitorpena.
- Eskabidearen datan egindako ganadu-errola.

Udalerriko abeltzainen alkarteak urtarrilean informazino guztia batu eta larreen erabilerarako eskabideak izapidetuko dauz. Abeltzainen alkarteak Orozkoko Udalean aurkeztu beharko dau dokumentazino guztia, **Jarraipen batzordeak** oneritxia emon deion, Bizkaiko Foru Aldundiari azalaren banaketa jakinarazteko epea amaitu baino 15 egun lehenago.

Ez da onartuko aurretik aipatutako datuak zein dokumentuak jasotzen ez dituen eskabiderik. Udala konturatzen bada eskatutako edozein betebeharrak falta dala, horren barri jakinarazi eta hamar eguneko epea emongo deusko eskatzaileari hutsunea zuzendu daian; era berean, zuzendu ezean bere eskaria gehiagoko izapide barik artxibauta geratuko dala ohartaraziko deusko.

Udalak larreak erabilteko emoten dauan baimena besterenezina da.

5. artikulua: ABERE-GAINKARGA

Udalak, Foru Aldundiko Basoetarako Zerbitzuak edota **Jarraipen batzordeak** larreguneen gehiegizko erabilera edo erabilera okerra gertatu dala hautemanenez gero, abeltzaintza jarduera eskusiboan ari diranak, bertoko arrazak, intereseko espezieak eta ekonomia umilenak lehenetsiko dira. Hori guztia **Jarraipen batzordean** baloratuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuak, Herri Onurako Basoen kudeatzaile modura, abeltzaintza alderdi bakoitzarako gehienezko ganadu-zama jarri beharko dau. Gehienezko zama honek ezin izango dau gainditu, ezelan bez, 2 GAU/Hektareako.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuak larreak degradetan dagozala egiaztatzen badau, **Jarraipen batzordean** hau konpontzeko neurriak hartuko dira.

6. artikulua: BETEBEHARRAK

Larreen erabiltzaileen betebeharrak honako honeek izango dira:

ESKABIDEAK:

- Abenduan eskatutako dokumentazioa eta larreen baimena urtero eskatzea Orozkoko abeltzainen alkarteari.

LARREN BENETAKO ERABILERA

- Foru arauan (ondoren taule orientagarri bat ageri da) eta Orozkoko Udalak halan erabagita, jarritako epe orientagarrietan larreak benetan erabiltea.

Ondorengo taulan islatzen da Gorbeiaiko menigunea erabiltzen daben espezie desbardinaren erabilera orokorra

JARDUKETA	ARDIAK			BEHIAK	ZALDIAK	AHUNTZAK
	HAZTEA	JEZTEA MENDIA	JEZTEA IBARRA			
Larreetan sartzea	Apirila	Maiatza	Garagarrila	Maiatza	Apirila	Maiatza
Egoera fisiologikoa	Edos.	Lehorra	Lehorra	Edos.	Ernaldi amai.	Lehor/haz.
Kumeak kentzea	Garagarrila			Iraila-urria	Iraila-urria	Azaroa-aben.
Helduak kentzea	Azaroa-abendua			Azaroa-aben.	Aben. (batzuk mendiak geratzen dira)	Azaroa-aben.

- Urtarrilaren 15etik martiaren 15era bitartean ezin izango da larrerik erabili.
- Ez erabiltzea larreak baimendutako xede eta helburuetatik apartekoetarako.

IDENTIFIKAZINOIA:

- Organo eskudunak ofizialki aitortutako sistemen bidez aldeztu aurretik eta banan-banan identifikauta euki beharko dira animaliak, eta ganera Orozkoko Udalaren identifikazio-arrakadagaz identifikatu beharko da ganadua, Larreen **Jarraipen batzordean** jarritako erispideei jarraiki, eta ardi-ganadua salbuetsita.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

OSASUNA:

- Indarrean dagoen animalien osasun araudia betetea, eta behar diran osasun-kanpainen sartuta egotea.
- Ganera, ezinbestekoa izango da larreetara sartuko dan ganadu guztiak Larreen **Jarraipen batzordeak** jarritako Orozkoko Osasun Plana betetea.
- Urteko osasun-kanpainen emoitza jaso ostean, Orozkoko abeltzainen alkarteari kopia bat igorriko jako. Animalia barri bat eskuratzen danean be gauza bera egingo da.

KANONA:

- Urte eta ekitaldi bakoitzerako Udalak erabagitarako kanona ordaintzea zein beste edozein derrigorrezko ordainketa udalak jarri ahal izango dauena.

Udal honek urtero jarriko dau larreguneen aprobetxamenduagaitik ordaindu behar dan kanona. Hau guztia, aldeztu aurretik **Jarraipen Batzordearen** proposamenagaz eta Mendi eta Babestutako Naturguneen buruzko bagilaren 2ko 3/94 Foru Arauaren 49.artikuluaren aurreikusitakoagaz bat etorritik.

BESTE BATZUK

- Indarrean dagoen beste edozein araudi espezifiko betetea.
- Herri lanetan parte hartzeko, eta larreen mantentze-kostuak zein honeetan dagozan azpiegiturak (askak, mahukak...) ordaintzeko prest egotea, bai norbanako lez bai jagokon alkartearen bitartez.
- Helburu honetarako sortuko dan **Jarraipen batzordean** parte hartzea. Batzordeak berezko funtzionamendu arauak landuko ditu.
- Larre barruetan burdin haria ipintzearen bidezko barruko itxitura edo zatikako banaketarik ez egitea; dana dala, aprobetxamentu honen helburu diran larreak inguratuz itxi ahalko dira. Halandabe, itxiturak egin ahal izango dira aldeztu aurretik Larreen **Jarraipen batzordeari** eskaera aurkeztuta eta ostean Orozkoko Udalak onarpena emonda, betibe Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuaren edo Parke Naturala kudeatzen dauen erakundearen aldeko txostenagaz, kasua balitz.

7. artikulua: BERTOKO ARRAZEN HAZITARAKOAK

Ondorengo arrazen hazitarakoek baino ezin izango dabe eskatu larreak erabiltea:



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

Zaldiak: Euskal Herriko mendiko zaldia eta pottoka.

Behiak: Pirinioetako, Terreñoa eta Betizu.

Ahuntzak: Azpigorria.

Ardiak: Latxa eta Sasiardia.

Espezie honeetako hazitarakoak eroan gura badira larreetara, ezinbestekoa izango da partikularrak behar dan administrazio-baimena eskatzea, holan animalia honeek aitatutako aprobetxamentuak eskuratu daiezan. Kaso honetan, animalia-identifikazio genetikoari eta sanitarioari jagokonez indarrean dagoen araudiak eskatzen dauen dokumentazioa bete beharko dau eskatzaileak.

Salbuespena: Egun ez da Orozkoko Latxa arrazako ardien identifikazio genetikorik egiten, baina beharrezkoa da apurka-apurka, gutxienez arrak, estandar genetiko ofizialetan sartzen joatea.

8. artikulua: BAIMENA UKATZEA

Ordenantza honetan jarritako baldintzaren bat ez dala beteten ikusiz gero, ukatu ahal izango dira larreetarako baimen eskabideak.

Era berean, emondako baimenak be ezeztatu ahal izango dira kasu honeetan:

- Larre-lursailen erabilera behar izatea interes publikoko arrazoi batzuegatik erabagitako beste erabilera batzuetarako, edo Udalak onartutako proiektuen ondorio diran obrak edo lanak egiteko.
- Osasun husketa ezartzen danean.
- Erabiltzaile-kolektiboaren intereserako baimen bat ezeztatu behar danean.

9. artikulua: BAIMENDU BAKO GANADUA

Baimen barik, baimendu diran alderdietatik kanpo edo Ordenantza honetan jarritako baldintzak beteten ez dabean ganaduak larreetatik atera ahal izango dira, alde aurretik jakin arazpena bialduz gero.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

Udalak, bere kabuz edo beste entidade publiko edo Abeltzain alkarteekaz batera, ganadu arrotza larreetatik atera ahal izango dau eta euren jabeei erantzunkizunak eskatu.

10. artikulua: IKUSKAPENAK

Udalak beretzat gordeten dau aurkeztutako aitorpenak eta datuak zehatzak eta benetakoak dirala uneoro kontroletako eskubidea. Kontrol hau bertako udalkide, teknikari edo langile gaituek egin ahal izango dabe, ikuskapenen bitartez, eta abeltzainek edo artzainek ezin izango dabe ezelako oztoporik edo trabarik jarri ikuskapenoi.

Ganadua ezkutatzea ekiditeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzantza Zerbitzuan dagozan datuekaz kontrastauko dira eskabideak.

11. artikulua: BIDE-ZORRAK

Larreguneetan egon ahal diran bide-zortasunak eta ustiattegietatik egon ahal diren sarbideak errespetau beharko dira. Zentzu honetan, Orozkoko Udalak, **Jarraipen Batzordearen** proposamenari jarraiki sarbide honeen gaur egungo egoera ezagutzeko behar diran azterlanak egingo dauz.

12. artikulua: GUNEAK MUGARRITZEA

Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiko Basoetarako Zerbitzuaren alde z aurretiko txostenagaz, eta **Jarraipen Batzordeari** aurretik kontsulta eginda, ganaduen arraza batzuen aprobetxamenturako larreguneetako alderdi batzuk mugatu ahal izango dauz; hau guztia, beste gauza batzuen artean, arraza horretako ganadu gazteak hazteko guneak zehazteko asmoz.

13. artikulua: LARREEN JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzordea sortuko da, larreguneen erabilera eta ustiapena hobetzeko gaietan aholkua eskaini eta koordinaziorako kontsulta-organo lez.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

Jarraipen Batzordea honako kide honeekaz eratuko da:

- Orozkoko Udaleko Alkatetzak izentautako 3 ordezkari.
- Larreen erabilerarako baimendutako abeltzainen 3 ordezkari, ahal dala ganadu mota bakotxeko bana (behiak, zaldiak eta ardiak/ahuntzak), beraien kabuz izentauta.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuko ordezkari 1.
- Beharrezkotzat jotzen diran kasuetan, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Abeltzantza Zerbitzuak be ordezkari 1 izango dau –ahotsagaz eta botoagaz-.

Orozkoko alkatea izango da **Jarraipen Batzordearen** lehendakaria, eta kalidadeko botoa izango dau bozketan bardinketa bat izango balitz.

Eratzeko egingo dauen bileran, **Jarraipen Batzordeak** bere barruko araudia eta funtzionamenturako arauak jarriko dauz, Orozkoko Udalak onartuko dauazalarik.

Orozkoko Udalak legegintzaldi bakotxean, udala eratzen danean, izentauko dauz **Jarraipen batzorderako** daukazan ordezkariak. Abeltzainen alkarteak Zuzendaritza batzordea aldatzen dan bakotxean izentauko dauz bere ordezkariak, eta Udalari jakinaraziko deutso.

14. artikulua: MUGAKIDE DIRAN UDALERRIETAKO GANADUA

Udalak malgutasun-eremuak jarri ahal izanngo dauz mugakide diran udalerrietako ganaduagaz, betibe ondorengo baldintzak betez gero:

- Ordenantza honetan jarritako osasun-baldintzak betetea.
- Ganadu-zama: Gitxienez 0,2 eta gehienez 2 GAU/Hektareako mugakide diran larreguneetan.
- Ordenantza honetan jarritako bertoko arrazen kudeaketari buruzko alderdiak betetea.
- Ganadua udal arrakadagaz identifiketea.
- Urtarrilaren 15aren eta martiaren 15aren arteko osasun-husketa epea errespetetea.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

Kasu honeek Larren **Jarraipen batzordean** jorratuko dira.

15. artikulua: LARREEN APROBETXAMENTUARI BURUZKO AZTERKETA

Orozkoko Udalak, **Jarraipen Batzordearen** proposamenez eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren Basoetarako Zerbitzuaren lankidetzagaz, aldiro-aldiro azterketa bat egingo dau larreguneen ustiapen osoa eta bete-betekoa egin ahal izateko baldintzak zehaztu asmoz. Ataratako ondorioak administrazioarentzako oinarri izango dira, hurrengo aldietan be, larreguneak administretako.

16. artikulua: OBRAK ETA AZPIEGITURAK

Ordenantza honek arautzen dauazan larreguneetan egin gura dan edozein azpiegitura-obra Orozkoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuak baimendu beharko dabe. Azken honek, basoaren balio naturalekaz bideragarri dan aldeko txostena alde z aurretik eginda, eta kasua bada, Gorbeiaiko Parke Naturaleko Kudeaketa-Erakundeak egindakoagaz bat etorriz. Era berean, **Jarraipen Batzordeari** alde z aurretik kontsultau beharko jako.

17. artikulua: GORBEIAKO PARKE NATURALAREN BAIMENA

Gorbeiaiko Parke Naturalean kokatuta dagozan larreguneetan egiten diran ekintza guztietarako Parke Naturaleko Kudeaketa Erakundearen baimena beharko da.

18. artikulua: BAIMENA BALIOBAKOTZEA

Orozkoko Udalak beretzat gordeten dau egokitzen jotzen dauazan kasuetan larreetarako baimenak baliobakotzeko eskubidea, betibe Larreen **Jarraipen batzordeari** alde z aurretik kontsulta eginda.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

19. artikulua: ARAU-HAUSTEAK

Ordenantza honetako arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

- **Arinak:** Honako honeek dira arau-hauste arinak:

- Larreak gitxiegi erabiltea.
- Larreetarako baimendutako ganadu-ale bat edo batzuk identifikau barik egotea, une zehatzean gertatu danean eta aurrekoetan ez danean errepikatu.
- Ordenantza honetako baldintzetako bat ez betetea, betibe mediku-arrazoiengaitik edo ezinbestean izanez gero.
- Larreei edo aprobetxamendu planean aurreikusitakoari eragiten deusien ekintzak edo ez-egiteak, betibe honeek larritzat edo oso larritzat jotzen ez badira.
- Larren **Jarraipen batzordeak** arau-hauste arintzat jotzen dauen beste edozein kontu.

Pertsona arduradunari jakinaraziko jakoz arau-hauste arinak, eta hurrengo kanpainarako konpondu ezean larriak izatera igaroko dira.

- **Larriak:** Arau-hauste larriak larreei edo ganaduari kalteak eragiten deusiezan ekintzak edo ez-egiteak, edota osasun arauen aurka doazenak dira, betibe oso larritzat jotzen ez badira.

Edozelan be, larritzat joko dira:

- Animaliek garaia ez danean larratzea.
- Animaliek baimen barik larratzea.
- Larreetarako baimena dauken zaldi-, behi- eta ahuntz-ganadu guztiak, edo ganadu-ale kopuru altua, identifikau barik egotea.
- Hirugarren baten animaliak larratzera eroatea, norberarenak balitzaz lez azalduz.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren osasun-kanpainako probak igaro barik, Orzokoko osasun-kanpainako probak igaro barik, edo behar diran txertoak jarri barik ganaduagaz larreetara joatea.
- Ez jakinaraztea gaixotasun infekto-kutsagarri bat daukan animalia bat hil izana.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

- Onuradunak, baimenduta daukazanak baino abelburu gehiago eroatea larratzera.
- 3 arau-hauste arin pilatzea.
- Larren **Jarraipen batzordeak** arau-hauste larritzat jotzen dauen beste edozein kontu.

Pertsona arduradunari jakinaraziko jakoz arau-hauste larriak, eta 15 eguneko epean honeek konpontzeko ekintzakaz hasi ezean oso larriak izatera igaroko dira.

Pertsona berak arau-auste larri bat errepikatuz gero, berau oso larritzat joko da.

- **Oso larriak:** Arau-hauste oso larritzat larreen birsorkuntza edo instalazinoen mantenua arriskuan jartzen dabenekintzak edo ez-egiteak, edota gaixotasun infekto-kutsagarriak transmititzeko arriskutsuak diranak joko dira.

Honako honeek dira arau-hauste oso larriak:

- Abereen osasun kanpainen probetan eta udal honek erabagitako osasun planetan emoitza positiboak izan dabezan abelburuak larreetara eroatea.
- Gaixotasun infekto-kutsagarria edo beste mota batekoa izandako animalia bat hil eta bere jabeak jaramonik egiten ez deusonean.
- Erretako larretan artzaintza.
- Arrakadekaz iruzur egitea.
- 3 arau-hauste larri pilatzea.
- Larren **Jarraipen batzordeak** arau-hauste oso larritzat jotzen dauen beste edozein kontu.

Pertsona arduradunari jakinaraziko jakoz arau-hauste oso larriak, eta 15 eguneko epean konpondu beharko dira. Konpondu ezean, automatikoki ezeztatuko da urte horretan larreetara sartzeko baimena, eta baimena mugarik barik ezeztatzeko aukera aurreikusten da.

20. artikulua: ZEHAPENAK

Arau-haustek ondorengo isunekaz, eta arau-haustearen larritasunaren arabera urtebetetik hiru urtera bitartean larrerako eskubidea etenda zigortuko dira, gerta daitekezan kalte-ordainei kalterik egin barik.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

- b) Arau-hauste larriak 300 €tik 600 €ra bitartean.
- b) Arau-hauste oso larriak 601 €tik 3.000 €ra bitartean.

Zehapenen inguruko agintea daukanak, hau da, udalak, zehaztuko dau zenbatekoen graduazinoa, aldez aurretik **Jarraipen Batzordeak** egindako erispenagaz, eta kontuan izanda kasu bakoitzean gertatutako zirkunstantziak eta zehapenaren proportzionaltasun printzipioa.

Arau-haustek animalien artzantzagaz tipifikauta dagozanean edo honeen ingurukoak diranean, abelburuko jarriko da zehapena, eta ez dau kalifikazio hau aldatuko jabe berak abelburu bat baino gehiago izatearen onodrioz ordaindu beharreko diru-kopuruak arau-haustean aurreikusitako zehapena gainditu izanak.

Zehapenak diru bidez edo ganadu jarduerarekin lotura duen lan komunitario bidez ordaindu ahal izango dira. Zehapenak jarteko agintea daukanak zehaztuko dau ordaintzeko era. Larreen **Jarraipen batzordeak** egingo dau diru-kopuruaren eta lanen arteko bihurteta.

21. artikulua: PRESKRIPZINO-EPEAK ETA HUTSEGITEEN PILAKETAK

Arau-hauste oso larriak hiru urteko epean preskribiduko dira, larriak urte biko epean, eta arinak sei hilabeteko epean. Era berean, epe honeek hartuko dira kontuan hutsegiteen pilaketarako.

Zehapen oso larriak hiru urteko epean preskribiduko dira, larriak urte biko epean, eta arinak urtebeteko epean.

22. artikulua

Ordenantza hau Basoei eta Babestutako Naturgunei buruzko bagilaren 2ko 3/1994 Foru Arauak jarten dauenari atxikita dago. Zehazki, III. kapituluko I. ataleko 68tik 72ra bitarteko artikuluetan -biak barne- jarten dauenari atxikita, bertan Herri Onurako Basoetan abeltzaintza arautzen baita; baita honen ganean 43/2003 legeak eta 3/2007 foru-arauak jarten dauenari.



OROZKOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE OROZKO

**ERANSKINAK: GAIXOTASUNEN BAT AZALTZEN DANEAN JARDUTEKO
PROTOKOLOAK**

(Bizkaiko Foru Aldunditik jasoteko zain)